

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

DOHAINIK FORMAZIOA

Kurtso on line

25 ordu (kreditu 1)


EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNA

2023

urriaren 16tik azaroaren 24ra

Gizonduz

www.euskadi.eus/gizonduz



EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER



UPV/EHUko BERDINTASUNERAKO ZUZENDARITZA
DIRECCIÓN PARA LA IGUALDAD DE LA UPV/EHU

Erakunde autonomiaduna

Organismo Autónomo del

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

BERDINTASUN, JUSTIZIA
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES

EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNA

Modua: **online, 25 ordu (kreditu 1), dohainik**

Hizkuntza: **euskara**

Plazak: **100 plaza ikasle, AZP eta IIPentzat**

Izen-emateak: **2023ko irailaren 11tik urriaren 6ra**, biak barne

Hasiera-data: **2023ko urriaren 16an**

Amaiera-data: **2023ko azaroaren 24an**

Arduraduna

Enara Agirre Arrizabalaga

Ebaluatzaile taldea

Elo Mayo Cabero

Christina Werckmeister Lacarra

Jose txu Riviere Aranda

Karlos García Zuazo

Talde teknikoa

Jose txu Riviere Aranda

Eneritz Ibarquengoitia Basterretxe

Programa

Antolatzailea

UPV/EHUko Berrikuntzaren, Gizarte Konpromisoaren eta Kulturgintzaren Arloko Errektoreordetza eta Berdintasunerako Zuzendaritza

Egileak

Elo Mayo Cabero, Christina Werckmeister Lacarra, Mikel Otxotorena Fernández y Jose txu Riviere Aranda

Sarrera

Gure gizartean egin den eraldaketarik handienetako bat emakumeak hezkuntza formalera sartzea izan dela baieztatu dezakegu.

Lehen geneuzkan hesiak desagertuz joan dira, emakume askoren eta gizon batzuen borrokari eta konpromisoari esker, berdintasuna giza eskubideen defentsaren erdigunean jartzeko prest agertu baitira horiek.

Alabaina, ezin dezakegu "berdintasunaren ameskeriak" harrapa gaitzala utzi, ez eta egun dauden berdintasun-gabeziak ukatu ere. Izan ere, aurkakoa egin behar dugu. Indarrean dagoen gizarte-ereduari buruzko hausnarketa sakona egin behar dugu.

Berdintasun-gabeziak dituen gizartea nola eraikitzen den ulertu behar dugu, gero eta berdintasunezkoagoak diren eredu berriak eraiki ahal izateko. Horretarako proposatzen dizuegu prestakuntza interaktiboa egitea, modu kolektiboan barneratu ditzagun edukiak.

Genero-desberdinkeria sorrarazten duten funtsezko kontzeptuen jatorria eta funtzionamendua aztertuko ditugu. Honaino ekarri gaituen historia eta horren bilakaera ezagutuko ditugu, bai eta egun dauden berdintasun-gabeziei buruzko zenbakiak eta datuak, politiken eta mugimenduen ildoak, aldaketen aurrean agertzen diren erresistentziak eta eskura ditugun eraldaketarako tresnak ere.

Azken batean, begirada-aldaketa hori zuen bizipenetan proiektatu ahal izatea da kontua.

Horixe da ikastaro honen helburua. Berdintasunera hurbiltzea, baina ez ezagutzatik bakarrik abiatuta: unibertsitateko ikasleentzat oso interesgarria izan behar da, uste osoz, berdintasuna ikaskuntzaren zeharkako zatia izatea.

Xedeak

Ikasleek errealitatea genero-ikuspegitik hobeto ulertu ahal izateko ezagutza teoriko-praktikoak lortzea da ikastaroaren helburua.

Genero-diskriminazioak hautematea eta horiek gainditzeko proposamenetan aurrera egitea ahalbidetuko duten askotariko tresna teoriko eta metodologikoetan trebatu beharko dira.

Mugimendu feministaren historia ezagutzea, egungo egoera ulertzeko ezinbesteko esparru gisa.

Emakumeen eta gizonen berdintasunerako lan-estrategia publikoak eta lan egiteko proposamenak ezagutzea.

Egitura sexistaren ondoriozko ideiak, pentsamenduak, jarrerak eta jokaerak identifikatzea eta horiei alternatibak jartzea, eta egitura sexista horrek pertsonengan eta taldeengan dituen ondorioak ebaluatzea.

Berdintasunezko balioak transmititu nahi zaizkie ikasleei, beren bizitza pertsonalean nahiz profesionalean sar ditzaten.

Gaitasunak

- Genero-desberdinkerietarantz bideratzea ikasleen sentsibilitate testuinguru ezberdinetan.
- Genero-ikerketen gaineko kontzeptu nagusiak ezagutzea, bai eta horien berrikuspenak eta ekarpenak ere.
- Diskriminazio- eta desberdinkeria-egoerak identifikatzea, horien esanahi eta ezarpen ezberdinak ulertuz.
- Berdintasunerako politiken ibilbidea, horien bilakaera, ezarpen praktikoa eta berdintasuneranzko bidean dauden erronkak ezagutzea.
- Azterlan feministek eta generokoek egiten duten ekarpena ulertzea.
- Emakumeen eta gizonen berdintasunaren aldeko konpromiso etikoa.
- Gaitasun kritikoa garatzea genero-desberdinkerien aurrean, errealitatea genero-ikuspegitik aztertzen ikasiz.

Edukiak

1 modulua

Sexu-genero sistema. Generoaren sozializazioa.

2 modulua

Emakumeen eta gizonen arteko ezberdintasunari buruzko diagnostikoa.

3 modulua

Berdintasun politikak. Bilakaera eta kontzeptu nagusiak.

4 modulua

Feminismoak eta jabekuntza feminista.

Metodologia eta ebaluazioa

Ikastaroko gai bakoitzean, hau egongo da:

- Unitate bakoitzaren eduki teorikoa: gaia sakon landuko duen ekarpen teorikoa (15 orrialdekoa gehienez).
- Dokumentazioa: unitate didaktiko guztiek edukiko dute beren zerrenda bibliografikoa, baita erreferentziazko gaietan sakondu ahal izateko beharrezkotzat jotzen diren baliabide guztiak ere (bideoak, albisteak, webgunetarako estekak e.a.).
- Parte hartzeko foroak: ikasleek nahitaez hartu beharko dute parte foro guztietan, ikastaroaren xedeak gainditu eta ziurtagiria lortzeko. Foroetan, artxiboak eta dokumentuak partekatu ahalko dira.
- Testa: jaso diren ezagutzak baloratzeko asmoz, ezagutza-testa egin beharko da unitate didaktiko bakoitza amaitzean, eta hurrengo unitatera igarotzeko betekizuna izango da.
- Azken lana: ikastaroa amaitzen denean, gaiarekin zerikusia duen lan bat egingo da.